

Zure finantza kaudimena aztertu ondoren, behin-behinean zure kreditu txartelaren/kontuaren muga erabilgarria partzialki murriztu dugula jakinarazten dizugu; beraz, aurrerantzean, muga berrirainoko eragiketak bakarrik egin ahal izango dituzu.

Neurri honek ez ditu aldatzen kreditu txartelaren/kontuaren gainerako baldintzak, gaur egun duzun zorrari dagokionez. Gogoratu neurriaren helburu bakarra dela zure gastuak ez handitzea, zorra ordaintzeko zailtasunak izan ditzakezula uste baitugu.

Beti bezala, edozein zalantza edo kontsulta izanez gero, erabili gure harremanetarako kanalak, webgunean edo aplikazioan.

** Neurri hau zure txartelen kontratuan jasota dago, eta indarrean dagoen lege araudian oinarritzen da. (Ordainketa zerbitzuei buruzko 19/2018 Errege Lege Dekretuaren 40.2 artikulua hau ezartzen du: "2. Esparru-kontratuan adostu den guztietan, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileak ordainketa-tresna blokeatzeko eskubidea edukiko du (...) arrazoi objektiboki justifikatuak daudenean, (...) edo, kreditu-linea bati elkartuta badago, agindu-emailea ordainketa-betebeharrari aurre egiteko ezgauza izatearen arriskua nabarmen handitzen denean".)*

Caixabank Payments & Consumer, EFC, EP, SAU, pertsona bakarreko sozietatea. IFK: A-08980153. Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (36.556 liburukia, 29. folioa, M-656492 orria), eta 8776 zenbakiarekin inskribatuta dago Espainiako Bankuaren Kreditu Establezimenduen Erregistroan.